Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4759

EBAZPENA, 2009ko uztailaren 29koa, Hezkuntzako sailburuordearena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende ez dauden euskaltegiei eta hizkuntza-ikastegiei 2008-2009 ikasturtearen bigarren txandako ikasleen matrikula-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak emateko dena.

Irale programa arautzen duen 1994ko urtarrilaren 28ko Aginduak (1994ko otsailaren 11ko EHAA), Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko klase-emankizunez diharduenean, honela dio bere 23. ataleko 4. pasartean: Hezkuntza Sailburuordetzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian jakinaraziko du, aldiro-aldiro, ekitaldi jakin batean Irale programan parte hartzeko onartzen diren ikasketa-elkarteen zerrenda.

Eginbide hau zuzen eta garaiz burutu ahal izateko, Hezkuntza sailburuordearen 2008ko apirilaren 23ko Aginduak (EHAA, 2008ko maiatzaren 6koa) 2008ko udarako eta 2008-2009 ikasturterako Irale programaren Hezkuntza Sailburuordetzaz kanpoko ekitaldiak (konkretuki, irakastorduz kanpokoak) jakinarazi zituen, eta beraien mamikuntzan parte hartu nahi duten ikasketa-elkarteentzako deialdia zabaldu.

Agindu horren ondorioz ebazpen bi jakinarazi ditu, biak ekainaren 25ekoak (EHAA, 2008ko uztailaren 17koa), Hezkuntza sailburuordeak: bata, Iraleren 2008ko udako klase-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena eta bestea 2008-2009 ikasturtean Irale programaren Sailburuordetzaz kanpoko ikastaro-emankizunetan parte har dezaketen ikasketa-elkarteak onesten dituena.

Ebazpen horiek, beren xedapen gehigarrietan, material-prestakuntza eta zenbait kasutako joan-etorri gastuak ere zehatz arauturik dituzte.

Horren guztiaren garapenez, 2008-2009 ikasturtearen bigarren eta hirugarren hiruhilekoan hainbat klase-emankizun burutu dute kasuan kasuko ikasketa-elkarteek. Emandako klase-emankizunak ordaintzea dagokio, beraz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari. Hori dela-eta, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten diren euskaltegi eta ikasketa-elkarteei bertan adierazitako diru-kopuruak ordaintzea, 2008-2009

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

4759

RESOLUCIÓN de 29 de julio de 2009, de la Viceconsejera de Educación, por la que se conceden ayudas a los euskaltegis o centros de capacitación idiomática ajenos al Departamento de Educación, Universidades e Investigación, por los costos de los cursillistas matriculados durante la segunda tanda del curso 2008-2009.

La Orden de 28 de enero de 1994 (BOPV, 11-02-1994), por la que se regula el programa Irale, con respecto al desarrollo de las actividades no ejecutadas directamente por este Departamento, en el artículo 23 apartado 4, dice: la Viceconsejería de Educación, mediante la publicación en el BOPV, dará a conocer periódicamente la relación de asociaciones de enseñanza autorizadas a participar en el programa Irale durante un tiempo determinado.

A fin de cumplir correctamente y a su debido tiempo dicho precepto, la Orden de 23 de abril de 2008 (BOPV, 6 de mayo de 2008) del Consejero de Educación dio a conocer las actividades de ejecución ajena a la Viceconsejería de Educación del programa Irale para el verano de 2008 y el curso escolar 2008-2009, así como la convocatoria para participar en las mismas.

Como consecuencia de dicha Orden, por Resolución de 25 de junio de 2008 (BOPV, 17 de julio de 2008) del Viceconsejero de Educación, Universidades e Investigación se publicó, por un lado, la relación de entidades o euskaltegis autorizados a participar en las actividades a desarrollar fuera del horario lectivo durante el verano de 2008, y por otro los autorizados a participar durante el curso escolar 2008-2009.

Dichas resoluciones, a su vez, en sus correspondientes disposiciones adicionales, regulan los gastos correspondientes a la elaboración de material original y específico y, en determinados casos, los gastos de desplazamiento.

En desarrollo de todo lo anterior, corresponde al Departamento de Educación, Universidades e Investigación conceder la subvención correspondiente a cada euskaltegi y asociación de enseñanza en concepto de clases impartidas durante el segundo y tercer trimestre del curso 2008-2009, por lo que

RESUELVO:

Artículo único.– Aprobar la relación de euskaltegis y asociaciones de enseñanza que percibirán la subvención en concepto de costos de cursillistas matriculados du-

ikasturtearen bigarren txandako matrikula-gastuak estaltzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara ematen den egunaren hurrengotik hasi eta handik hilabeteko epean.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den unetik izango da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko uztailaren 29a.

Hezkuntzako sailburuordea,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

rante la segunda tanda del curso 2008-2009, así como la cuantía correspondiente a dicha subvención.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efecto a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2009.

La Viceconsejera de Educación,
M.ª ANTONIA OZCARIZ RUBIO.

ERANSKINA/*ANEXO*

ARABA Euskaltegia	Diru-laguntza *Subvención*	Guztirakoa *Total*
Laudioko UE	131,33	131,33
Euskaraz Koop. E.	3.605,63	3.605,63
Udaberria elkartea	705,00	
Hegoalde euskaltegia	319,80	
Gasteiz Adur (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	2.618,02	
Zaldiaran-Ardatz (Kultur Elkartea IKA) Gasteiz	2.721,55	6.364,37
	10.101,33	10.101,33

GIPUZKOA Euskaltegia	Diru-laguntza *Subvención*	Guztirakoa *Total*
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	1.254,85	
Errenteriako UE	23,80	
Eibarko UE	1.014,00	2.292,65
Hitzez euskaltegia SL - Donostia	820,00	
Kanpandegi SL	778,20	

GIPUZKOA Euskaltegia	Diru-laguntza *Subvención*	Guztirakoa *Total*
Atalarri SL	9.067,99	
Ilazki euskaltegia SCL	2.201,30	
Urrats euskaltegia S. Coop. Ltda.	70,00	
Euskaraz Koop. E.	1.974,87	14.912,36
HUHEZI, Koop. E.	8.271,79	
Maizpide Euskaltegia-Lazkao	8.970,64	
Gipuzkoako Bertsozale Elkartea	2.320,40	
Urtxintxa eskola	1.161,40	21.174,23
	38.379,24	38.379,24

BIZKAIA Euskaltegia	Diru-laguntza *Subvención*	Guztirakoa *Total*
Aula de cultura de Getxo (Getxoko EU)	231,00	
Enkarterrietako EU	248,00	
Amorebieta-Etxanoko EU – Ayto. Amorebieta	301,30	
Portugaleteko EU	259,60	
Trapagarango UE	232,96	
Sestaoko UE	142,56	
Basauriko UE	228,96	
Aita Villasante Udal Euskaltegia	249,60	
Muskizko UE	363,00	
Mungiako UE	205,00	2.461,98
Gabriel Aresti-Txinta Koop.	30.968,22	
Euskaraz Koop. E.	15.826,23	46.794,45
Aurten Bai-Zornotzako Barnetegia	19.319,97	19.319,97
Juan Mateo Zabala euskaltegia	1.976,32	
Bilbo Zaharra euskaltegia	29.055,60	
Gotzon Garitaonaindia euskaltegia	22,80	

BIZKAIA Euskaltegia	Diru-laguntza *Subvención*	Guztirakoa *Total*
Ulibarri euskaltegia	10.849,73	
Udako Euskal Unibertsitatea	2.466,37	
Urtxintxa Eskola-Bizkaia	1.615,68	
Jose Antonio Agirre euskaltegia	325,65	
Zenbat Gara Kultur Elkartea	2.804,16	
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa	23.830,10	
Bilboko Labayru-Inst. Diocesano E.J. Labayru	4.075,39	
Euskal Irakaslegoa - Deustu unibert.	4.177,95	81.199,75
	149.776,15	149.776,15